BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

4809

AGINDUA, 2014ko urriaren 30ekoa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, zeinarekin aldatu egiten baita ondoko agindua: Bilboko «Ibaigane» ikastetxe pribatuarekin sinatutako hezkuntza-ituna amaitutzat ematen duena. Bestalde, betiere, beherago zehaztutako ikastetxe pribatuari dagokionez, ebatzi egiten da 2014-2015 eta 2015-2016 ikasturteetarako plangintzaren aldaketa, eta horrez gain, ebatzi egiten da 2014-2015 ikasturterako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakaskuntzetarako hitzartu beharreko unitate kopurua handitzea: Bilboko (Bizkaia) «Salesianos Deusto-María Auxiliadora-San Juan Bosco».

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2014ko irailaren 19ko Aginduaren bitartez, amaitutzat jotzen da: Bilboko «Ibaigane» ikastetxe pribatuarekin sinatutako hezkuntza-ituna. Halaber, betiere, beherago zehaztutako ikastetxe pribatuari dagokionez, ebatzi egiten da 2014-2015 eta 2015-2016 ikasturteetarako plangintzaren aldaketa, eta horrez gain, ebatzi egiten da 2014-2015 ikasturterako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakaskuntzetarako hitzartu beharreko unitate kopurua handitzea: Bilboko (Bizkaia) «Salesianos Deusto-María Auxiliadora-San Juan Bosco».

Bilboko «Salesianos Deusto-María Auxiliadora-San Juan Bosco» ikastetxe pribatuari dagokionez, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikaskuntzetarako eta 2014-2015 ikasturterako hitzartu beharreko unitate kopurua handitzeari buruzko huts bat atzeman da, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariari buruzko abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuko 18.8.c) artikuluarekin bat etorriaz, agindu honen bitartez zuzendu egiten da huts hori.

EBAZTEN DUT:

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2014ko irailaren 19ko Aginduko II. eranskina aldatzea. Agindu horren bitartez amaitutzat jotzen da: Bilboko «Ibaigane» ikastetxe pribatuarekin sinatutako hezkuntza-ituna. Halaber, betiere, beherago zehaztutako ikastetxe pribatuari dagokionez, ebatzi egiten da 2014-2015 eta 2015-2016 ikasturteetarako plangintzaren aldaketa, eta horrez gain, ebatzi egiten da 2014-2015 ikasturterako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakaskuntzetarako hitzartu beharreko unitate kopurua handitzea: Bilboko (Bizkaia) «Salesianos Deusto-María Auxiliadora-San Juan Bosco».

Vitoria-Gasteiz, 2014ko urriaren 30a.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.

Hau dioenean:

II. ERANSKINA

BIZKAIA

Herria	Ikastetxea	Maila	Moduloaren Izena	Moduloa	Talde	Eredua	Euroak
Bilbao	CPEIPS Salesianos Deusto-M. Aux.-Sa	DBH 1. Zikloa	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza- 1. Ziklo	Osoa	2	B	166.706,38
		DBH 1. Zikloa	H. Berariaz Sendotzeko Proiektua	Osoa	1		46.135,55
		DBH 2. Zikloa	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza- 2. Ziklo	Osoa	2	B	202.593,00

Hauxe esan behar du:

II. ERANSKINA

BIZKAIA

Herria	Ikastetxea	Maila	Moduloaren Izena	Moduloa	Talde	Eredua	Euroak
Bilbao	CPEIPS Salesianos Deusto-M. Aux.-Sa	DBH 1. Zikloa	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza- 1. Ziklo	Osoa	2	B	166.706,38
		DBH 1. Zikloa	H. Berariaz Sendotzeko Proiektua	Osoa	1		46.135,55
		DBH 2. Zikloa	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza- 2. Ziklo	Osoa	2	B	202.593,00
		Hezkuntza Berezia 1 DBH	Bigarren Hezkuntza Berezi Irekia	Osoa	1	B	57.912,23